

ZAZPIKA, GARA – 1 DE FEBRERO DE 2009

DANTZA

«Dantzaldi ibiltaria», Gordexolan

Aikok, dantza eta musika irakaslez osatutako taldeak, "Dantzaldi ibiltaria" ekimena jarri du abian. Horren bidez dantza tradizionala Bizkaiko herri ugari-tara zabalduko dute. Herri bakoitzean bi orduko dantza tailer bat eskainiko dute dohainik eta asteartero Durangoko Plateruena Kafe Antzokian erromeriak egingo dituzte «ikasitakóa praktikan jarri eta zaletasun bera duen jendea ezagutze-ko». Datorren ostegunean, hilak 5, Gordexolan izango dute dantza tradizionala modu dibertigarrian ikasteko aukera. Izena emateko: www.aikotaldea.com.

